

Amurrioko EAJk eta PSEk baztertu egin dute Aiaraldeko PAI eta PEC azkartzea

EH Bilduren mozioa eztabaidatu zen atzoko osoko bilkuran, Eskualdeko Plan Estrategikoa lehenbailehen onartu eta abiatzeko eskatzen zuena

Amurrio. 2024-03-27 | Atzoko osoko bilkuran eztabaidatu ziren Aiaraldeko Eskualdeko Plan Estrategikoari (EPE) buruzko mozioa, joan den hilabetean EH Bildu talde politikoak aurkeztua, bai eta EAJk eta PSEk aurkeztutako zuzenketak ere. Mozioa baztertu egin zen, EAJ eta PSEren aurkako 8 botoekin.

EH Bilduk harridura adierazi du zuzenketa horiengatik, egiten ari diren ekintzen jarraipena egiteaz hitz egiten baitute, baina ezin da ekintzen jarraipenik egin Eskualdeko Plan Estrategikoa oraindik onartu ez bada.

EH Bilduk erregistratutako mozioan, Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen zitzaien talde eragilea deitzeko Eskualdeko Plan Estrategikoa (PEC) adostu eta onar zezan, udalen eta eragileen ekarpenak kontuan har zitzaten behin betiko plana egiteko, eta Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak neurriak har zitzaten epe laburrean Berehalako Jarduera Plana (PAI) gauzatzeko, 33 ekintzen helburuak betez.

EH Bilduk otsailaren 14an argitaratutako prentsa-oharrean adierazi zuenez, mozio horrekin salatzen zuten hiru urte igaro direla Berehalako Jarduera Plana egin zenetik. Plan horretan 33 ekintza hartu behar zirela aipatzen zen, eta horietatik % 3,3 baino ez da bete.

"Neurriak berandu datozen, baina, hala ere, beti dira ongi etorriak", adierazi dute EH Bildutik. Berehalako Ekintza Plana (PAI) 2022tik 2023ra bitartean abiatu behar ziren neurrien multzoa da. Eskualdeko Plan Estrategikoan (PEC) ez bezala, gehiago atzeratu daitezke, baina EH Bildu taldearen ustez, "premiazkoak dira, urteak baitaramatzate horretan lanean, eskualdea arrisku egoeran dagoelako".

PNV y PSE de Amurrio descartan acelerar el PAI y el PEC de Aiaraldea

En el pleno de ayer se debatió una moción de EH Bildu que instaba a aprobar y poner en marcha cuanto antes el Plan Estratégico Comarcal

Amurrio. 27-03-2024 | El pasado martes, 26 de marzo, se debatió en pleno la moción sobre el Plan Estratégico Comarcal (PEC) de Aiaraldea presentada el pasado mes por el grupo político EH Bildu, así como las enmiendas presentadas por EAJ y PSE. La moción se dio por desestimada con los 8 votos en contra de PNV y PSE

Desde EH Bildu, han querido mostrar su asombro por dichas enmiendas, ya que hablan de supervisar la evolución de las acciones tomadas, cuando en ningún caso puede haber acciones si el Plan Estratégico Comarcal no se ha aprobado aún.

En la moción registrada por EH Bildu se instaba a la Diputación Foral de Araba y al Gobierno Vasco a convocar el grupo motor para que se acuerde y apruebe el Plan Estratégico Comarcal (PEC), que estos tuviesen en cuenta las aportaciones de ayuntamientos y agentes para la elaboración definitiva del plan, y que la DFA y el GV adoptasen medidas para la ejecución a corto plazo del Plan de Actuación Inmediata (PAI) cumpliendo con los objetivos de las 33 acciones.

Como EH Bildu manifestó en la nota de prensa publicada el pasado 14 de febrero, con dicha moción denunciaban que han pasado tres años de la elaboración del Plan de Actuación Inmediata en el cual se hablaba de 33 acciones a tomar, de las cuales solo se ha cumplido el 3,3%.

“Las medidas vienen tarde pero, de todas maneras, siempre son bienvenidas”, han declarado desde EH Bildu. El Plan de Actuación Inmediata (PAI) es un conjunto de medidas que se debían haber iniciado entre el 2022 y el 2023. A diferencia del Plan Estratégico Comarcal (PEC) podrían retrasarse más, pero el grupo EH Bildu considera que son “de urgencia ya que es algo en lo que llevan trabajando años porque que la comarca se encuentra en una situación de riesgo”.